

Isidoro de Fagoaga
1, rue de Hayet, 1
Saint Jean de Luz

Donibane-Lohitzun, - 6-II-1942

Mr; Pierre Laffite

U z t a r i t z

Jaun agurgarria/

Aurtengo neguan "Gure-Etche"n egin diran antzoki-jai-aldi batzuetan, zure lan polit bat agertu-arazi dute eta egun aietakoen batean emen azalduko zifala uste izanik orduan zuekin ezagoera egiteko zaletua nitzan. Ez zera agertu, zu, gure eskalerrri ontako galez oso jakintsua nola bai-zeran, galdera batzuek egin nai nizkizuke. Orrengatik lerro oiek idazten dizkizut.

Uztaritz jatorriko Garat'tarren sendi ospatuaz idazki-lan bat antolatzeke asmotan nabil eta artarako al-diran berri geienak bildu nai nituzke. Lengo udaran Eizaguirre eta Ernandorena gure adizkidiekin Uztaritz'en izatu nitzan eta Dassance jaunaren-gandik gai orretzaz gauza onak bildu nitun. Baña ez nik bear dituan guztiak eta jaun Auzapeza gaurko gertaeran bildez oso lampetua nola arkitzen bai dan, arek emandako berriak gañera, zuk beste batzuekin lagunduko ote dirazun bururatu zait.

Lenengo galdera au egin nai dizut; zuk, zauden tokian egonik, iñork baño obetego jakingo dezula uste det. Dominique eta José Dominique Garat, 1735 eta 1749 ean sortuak, beren ikaskunta egiten, Larressore'ko ikastola-zarrean ibilli zirala, egia al da?

José Dominique Garat (le jeune), bere bizitza nasia utzi eta Urdains'ko gaztelura bildu zanean Uztaritz'ko jaun erretora'ren adiskidez izan zala eta iltzarakoan Larressore'ko ikastola-nagusia'ren alde zerbait utzi zuala, egia ote da?

Dominique Garat (l'ainé), Uztaritzera bildu zanean eta "La Terreur"en bildurrez Españi'ra alde egin bearrean aekitu zanean, Españi-ko zein tokietan bizitu zan?

Bi anai oien edo sendi onen idazki, letra edo paper bat-edo-beste (ikusteko, besterik gaba) neri erakusteko era izango al zenduke?

Uztaritz'ko "La Motte" gaztelua, nola zan jakiteko agerkai bat egingo al lirazuke?

"Uztaritz", "Urdains", "Garat" itzak eta Nive ibaiaren lengo izen zarra, zure iritxira, zer esan nai duten esango al dirazu?

Urdax'ko Praille-etxea eta Uztaritz'ko errian artean izan ziran adiskidetasun eta artu-emanen berri emango al lirazuke? Idazlarien batzuk erraten dute Urdazubi'ko prailen sutegietan lan-tresnak lur-alde oik guztietara zabaltzen zirala.

Nive ibaiez gauzak ekarri-ereman nola egiten ziran, bai al dakizu?

Naparra eta Castilla'tik, Urdax barrena, etorten ziran gauzak (ardi-illeak batez ere); ontziratzeko kaisa edo tokia nun zan? Eta Urdax'tik Uztaritzerat, zein bidetatik etortzen ziran?

Aita Mobet'tek erraten zuan bezala, Baztan'go mugak Mundar-rain bere barrenean artzeraño irixten zirala, egia ote dan bai al dakizu?

"Biltzarrak" nun bildzen ziran, Eleiz-estadian ala La Motte gazteluan?

Beste gauza asko galdeko nizkizuke, baño aspertuko zaidutala bildur naiz. Egiten dizkizuten galdera guztiek erantzun ezin badezu, zuk geiena ezagutzen dituzun galez zerbait erran zaidazu, arren. Gauzak bereziki errezago errateko ohea dala uste ba dezu Frantzi'ko eraz idaztia berdin zait.

Ba-daa-entzun
ba da akit

Nere ausarditasuna eta ematen dizuten nekea barkatu zaizkidazu
eta agindu aaidazu zuk ere beti zurz ikasle eta euskalkide bezela

Tragoaga In *(Signature)*

